

2017ko EKAINAREN 2ko EBAZPENA, UPV/EHUko GERENTEARENA, "MANTENTZE LANETAKO ETA PRODUKZIORAKO ZERBITZUETAKO TEKNIKARI ESPEZIALISTA", MANTENTZE LANAK ETA PRODUKZIORAKO ZERBITZUAK ESPEZIALITATEA, LANPOSTUEI DAGOKIEN LAN-POLTSA HANDITZEKO HAUTAPEN-PROZESURAKO DEIALDIA EGIN, ETA ADMINISTRAZIO ETA ZERBITZUETAKO LANGILEEN ALDI BATERAKO PREMIAK ESTALTZEKO.

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateak AZPkoen zereginak betetzeko moduan dauden pertsonen zerrenda bat eduki behar du prest uneoro, lanpostuen zerrendako langileen ordezkapenak egiteko (edo sor litezkeen plaza hutsak betetzeko, legeak agintzen duen moduan bete arte) eta aldi baterako premiei erantzuteko.

Lan-poltsen osaera eta kudeaketari eta kideen antolamenduari buruzko 2010eko martxoaren 26ko Erabakia (2010eko ekainaren 8ko EHAA, 107. zk.) da elementu eragilea, baita tresna antolatzailea ere, eta horretan oinarritzen da aldi baterako enpleguaren kudeaketa-lana.

Aipatutako Erabakia aplikatuta, administrazioak berritu edo osatu egin beharko ditu oraingo lan-poltsak, baldin eta hautagai kopurua nahikoa ez bada aurreikusitako premiei aurre egiteko, edo nahikoa izanagatik, hautagaiek ez badituzte betetzen beharrezko baldintza guztiak. Horretarako, beraz, dagozkion aldi baterako hautapen-deialdiak egingo ditu.

Halaber, lan-poltsa berriak era daitezke, gaur egungoek bestelakoak, beti ere zioak objektiboak eta arrazoizkoak direnean eta unibertsitatearen intereserako denean. Horren xedea da zenbait lanpostuk duten lanbide-profil berezia unean-unean eta arduraz betetzea.

Gaur egun, Mantentze Lanetako eta Produkzioarako Zerbitzuetako Teknikari Espezialista kategoria profesionaleko, Mantentze Lanak eta Produkzioarako Zerbitzuak espezialitatea, Lan-poltsa agortuta dago. Aipatutako espezialitatea III taldeko Mantentze Lanen arduradun, Azpiegitura eta Mantentze Lanen arduradun, Delineatzaile, eta Mantentze Lanetako ofizial lanpostuei dagokie.

Ondorioz, Gerentzia honek, gobernu-taldearen egitura eta funtzionamendu arloak zehazteko, eta eskumenak eskuordetzeko UPV/EHUko Errektorearen 2017ko urtarrilaren 25eko Ebazpen bidez emandako eskuduntzak baliatuta (2017ko otsailaren 3ko EHAA)

HAU ERABAKI DU:

Lehenengoa.- Mantentze Lanak eta Produkzioarako Zerbitzuak espezialitateko "Mantentze Lanetako eta Produkzioarako Zerbitzuetako Teknikari Espezialista" lan-poltsa handitzeko hautapen-prozesurako deialdia egitea, deialdia arautuko duten Oinarriekin, honako Ebazpen honen I. Eranskinean jasotakoa, bat etorrira.

Prozesu honetan aukeratutako pertsonak hiru Campusetako edozeinetan zerbitzuak eskaintzeko aukera izango dute.

Bigarrena.- Prozesua bi faseetan egingo da. Lehenengoan, parte hartzeko eskabideak, hautaketa prozesuaren oinarrietan azaltzen diren merezimenduekin batera (ikasketa-tituluak, hizkuntza ez ofizialak eta euskara) jasoko dira, lehiakideen zerrenda bat egiteko asmoz.

Merezimenduak puntuatu eta gero, hurrenkera egingo da lehiakideen artean lehenengo berrogeita hamar pertsonak hautatuz.

Bigarren unean, hautatutako pertsonak azterketa praktikoa egingo dute. Lan-poltsa osatuko duten pertsonen hurrenkera erabakiko da puntuazio totalaren arabera. Hautagaien puntuazio totala kalkulatu da honako hauek batuz: ikasketa-tituluen eta hizkuntza ez ofizialen merezimenduen puntuazioa, euskararen puntuazioa, eta ariketa praktikoen puntuazioa.

Hirugarrena.- Honako Ebazpen honek administrazio-bidea agortzen du, eta beronen aurka berraztertze-errekurtsoa jarri ahal izango da, hilabeteko epean, Gerentzia honen aurrean; edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, zuzenean, administrazioarekiko auzien epaitegian, bi hilabeteko epean. Erabakia argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatuko dira epe horiek.

Leioan, 2017ko ekainaren 2a


Lore Bilbao Artetxe
UPV/EHUko GERENTEA

